

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU-SAREKO ERREPIDEETAKO ZARATAREN AURKAKO EKINTZA- PLANA

37/2003 Legea eta 213/2012 Dekretua
betetzea. 2002/49/EE Zuzentarauaren 4.
fasea

2025-2029 aldia



2025eko urria

tecnal:a

MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

tecnal:a

MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Aurkibidea

1. Xedea	4
2. Erreferentziazko lege-esparrua	4
3. Esparruaren eta eremu lasaien deskribapena.....	7
4. Agintaritza arduraduna	11
5. Zarata kartografiatzeko lanaren emaitzen laburpena.....	12
5.1 Zarataren Mapa Estrategikoen emaitzak	12
5.2 Zarata-mapen emaitzak.....	13
5.3 _Toc377977120Esposiziorik handieneko eremuen identifikazioa	14
6. Aurreko plana betetzea	15
7. Zarata murrizteko aplikatzen ari diren neurriak	16
7.1 Zortasun akustikoko eremuaren kudeaketa	16
7.2 Foru-errepideetako zarata-mailei buruzko kexa eta erreklamazioei erantzutea	17
7.3 Zarata txikiagoa igortzen duen zoladura.	17
7.4 Unean uneko problematiken azterketa	17
8. Ekintza Planaren eraginpeko lurralde-eremuari lotutako beste plan eta programa batzuk.....	18
8.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra 2017-2028, 63/2020 Dekretuaren bidez onartua.	18
8.2 2016-2027 aldirako Arabako Errepideen Plan Integrala (AEPI), martxoaren 30eko 6/2019 Foru Arauaren bidez behin betiko onartua.	19
8.3 Udal mailako Zarataren aurkako Ekintza Planak	21
9. Proiektu berriak.....	22
N-104 errepidea, Arkautiko herrigunea zeharkatzean.....	22
N-104 errepidea, Ilaratzako herrigunea zeharkatzean	23
N-240 errepidea, Gamarrako herrigunea zeharkatzean.....	23
N-240 errepidea, Legutioko herrigunea zeharkatzean	24
10. KALITATE-HELBURUAK GAINDITZEN DITUZTEN EREMUAK LEHENETSI ..	25

11.	Agintari eskudunek datozen bost urteetarako aurreikusitako jarduerak ..	28
11.1	Prebentzio-plana	28
11.2	Etengabeko hobekuntzako plana	30
11.3	Plan zuzentzailea. Lehenetsunezko jarduketa akustikoko eremuak.....	31
11.3.1	Lehenetsunezko Jarduketa Planak	33
12.	Onuren estimazioa	35
13.	Epe luzearako estrategia.....	36
14.	Informazio ekonomikoa eta egikaritze-plana.....	37
15.	Jarraipen-plana.....	38
16.	Informazioa jendaurrean jartzeko prozesua	38
16.1	Kontsulten izapidearen justifikazio-memoria.....	39
16.2	Informazioa jendaurrean jartzeko prozesuaren emaitzak.....	39
16.3	Ekintza Planaren behin betiko onarpena	39

Taulen aurkibidea

1. taula: Aztertutako errepideak	7
2. taula: MEUak eta MAUak zeharkatzen dituzten udalerriak.....	8
3. taula: ZME Aglomerazioetatik kanpo esposiziopean dagoen populazioa Leguna, Larratsaldea eta Lgaua (ehunekotan)	12
4. taula Zarata-mapak. Esposiziopeko populazioa Leguna, Larratsaldea eta Lgaua (unitateak).....	13
5. taula . Potentzialki eraginpean dauden eremuak, zarata-mapetako emaitzen arabera.	14
6. taula . Lehentasunezko jarduketa-eremuen betetze-maila (2016-2020).	15
7. taula Potentzialki eraginpean dauden eremuen aurretiazko ebaluazioa.	26
8. taula Jarduteko lehentasuna duten eremuak.....	28
9. taula Jarduteko lehentasuna duten eremuak.....	31
10. taula. LJEetako onuren estimazioa.	36

1. XEDEA

Txosten hau bat dator Arabako Lurralde Historikoko foru-sareko errepideetako Zarataren aurkako Ekintza Planaren (aurrerantzean ZEP) laburpen-dokumentuarekin. 2002/49/EE Zuzentarauaren 4. faseari dagokio eta honako lege hauek betetzen ditu: 213/2012 Dekretu Autonomikoa eta 37/2003 Legea, 1513/2005 Errege Dekretua eta 1367/2007 Errege Dekretua. Plan hau gauzatzeko epea 2025-2029 aldia da.

ZEP hori memoria bakar bat da, foru-errepideek sortutako zarata-inpaktuei erantzuna ematen diena, aztertutako lurralde osoari erreparatuta (batez beste 6.000 ibilg./egun baino gehiagoko intentsitatea duten bideak).

Ekintza Plan honetan inpaktu akustiko hauek bakarrik identifikatuko dira: zerbitzua ematen duten foru-errepideetan eta gaur egun existitzen diren edo finkatuta dauden egoeratan sortutakoak.

Inpaktuak identifikatzeko aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak (KAH) 213/2012 Dekretuan zehaztutakoaren arabera arautzen dira.

Erreferentzia-balio horiek betetzen ez dituzten eremuak identifikatzeko, zeinetan agintaritza eskudunak (kasu honetan, Arabako Foru Aldundia) aplikagarritzat jotzen baitu zarataren aurka jardutea, indarrean dagoen araudian jasotako figura hauek erabiltzen dira: lehentasunezko jarduketa-eremuak (LJE) eta haietarako definitzen diren lehentasunezko jarduketa-planak (LJP).

2. Erreferentziazko lege-esparrua

Arabako foru-errepideetako kutsadura akustikoa kudeatzeko eta dagokion Ekintza Plana garatzeko erreferentziazko lege-esparrua Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiek osatzen dute. Jarraian, foru-errepideei dagokienez, legeria horretako eskakizun aplikagarriak zehazten dira.

	37/2003 Legea, 1513/2005 Errege Dekretua eta 1367/2007 Errege Dekretua	213/2012 Dekretua, EAEko hots-kutsadurari buruzkoa
Kalitatearen helburu-balioak eta muga-balioak	Ez da aplikagarria, 37/2003 Legearen 4. artikuluko eskumen-banaketaren arabera.	Aplikagarria da.
Zarata-mapak	Zarata-mapa estrategikoak egiteko egutegia: egunean 8.000 ibilgailu baino gehiago dituzten bideak.	EAEko zarata-mapak: egunean 6.000 ibilgailu baino gehiagoko bideak.
Ekintza-planak	Zarataren Mapa Estrategikoen epeak bete behar dituzten bideetarako (8.000 ibilg./egun baino gehiago).	EAEko Zarata-mapan sartutako bideetarako (6.000 baino ibilg./egun baino gehiago).
Ekintza-planen gutxieneko edukia	1513/2005 Errege Dekretuaren V. eranskinaren arabera.	213/2012 Dekretuaren 17. artikuluan adierazia.

Arabako Foru Aldundiaren kasuan, ahaleginak egin dira denboran bat etor daitezen Zarataren aurkako Ekintza Planari dagozkion Estatuko eta EAEko legeria ezartzeko egutegiak, bi Ekintza Plan egon ez daitezen aldi berean: bata Estatuko legeriari lotuta eta bestea legeria autonomikoari lotuta.

Horrela, bada, Arabako errepideetako Zarataren aurkako Ekintza Plana memoria bakar bat da, foru-errepideek sortutako zarata-inpaktuei erantzuna ematen diena, aztertutako lurralde osoari erreparatuta (urte osoan batez beste 6.000 ibilg./egun baino gehiagoko intentsitatea duten bideak). Estatuko oinarritzko legeria betetze aldera, Ekintza Plan hau EAEko ingurumen-organoari bidaliko zaio. Ondoren, Europako Batzordeari bidaliko zaio, eta, era horretan, *Ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2002/49/EE Zuzentarauari* erantzungo zaio.

Arabako Foru Aldundiak foru-errepideetako zarata-mapak egin ditu, Estatuko nahiz autonomia-erkidegoko legeriaren ikuspegitik aplikagarriak diren baldintza metodologikoak betetzeko. Soinu-mailen kalkulu hauek egin dira:

- 8.000 ibilg./egun baino gehiagoko errepideetarako zarata-mapak, 2002/49/EE Zuzentarauak eta, beraz, 1513/2005 Errege Dekretuak ezartzen duten laugarren faseak eskatzen duen bezala.
- 6.000 ibilg./egun baino gehiago dituzten errepideetarako zarata-mapak, EAEko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuak eskatzen duen bezala.
- Zenbait foru-errepideren elkarguneetako zarata-mapak, errepideen arteko eragin gehigarria aztertze eta foru-errepide baten baino gehiagoren ekarpen akustikoak ukitu ditzakeen eremuak ebaluatze.

Zarata-mapak egiteko, errepideak bitan bereizi ziren: Mapa Estrategikoaren Unitatea (MEU) eta Mapa Autonomikoaren Unitatea (MAU). Bi kasuetan, zirkulazio homogeneoko trazadurak dira foru-errepideen zati horiek, eta, beraz, zarata-igorpen homogeneoak. Arabako Lurralde Historikoaren kasuan, sarritan, MEUa edo MAUa bat etortzen dira aztertu beharreko errepide oso batekin.

Ekintza Plan honetan inpaktu akustiko hauek bakarrik identifikatuko dira: zerbitzua ematen duten foru-errepideetan eta gaur egun existitzen diren edo finkatuta dauden egoeratan sortutakoak.

Lehenago zehaztu den bezala, 213/2012 Dekretuan arautzen dira inpaktuak identifikatzeko aplikatu behar diren kalitate akustikoko helburuak, eta lehentasunezko jarduketa-eremuen eta lehentasunezko jarduketa-planen bidez identifikatuko dira erreferentziazko balio horiek betetzen ez dituzten eremuak eta ardatzaren kudeatzaileak zarataren aurka jardutea aplikagarritzat jotzen dituenak.

Kalitate akustikoko helburu horiek 213/2012 Dekretuaren 31. artikuluan ezartzen dira (dekretu horren I. eranskineko A taulari egiten dio erreferentzia), eta lurralde jakin bateko zarata-iturri guztiek bete behar dituzte (aldi berean jarduten dutela kontuan hartuta).

A taula. Lehendik dauden area urbanizatupei aplikatu beharreko zaratarako kalitate akustikoko helburuak.

	Eremu akustiko mota	Zarata-indizeak		
		L_e	L_a	L_g
E	Kutsadura akustikoaren aurka babes berezia behar duten osasun-, irakaskuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi den lurralde-esparru edo -sektoreak.	60	60	50
A	Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	65	65	55
D	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	70	70	65
C	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	73	73	63
B	Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	75	75	65
F	Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo haiek behar dituzten beste ekipamendu publiko batzuek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak.	(1)	(1)	(1)

(1) Eremuaren mugan, mugakide duten eremuaren motari dagozkionak. 10. artikuluko 1. eta 2. ataletan aipatzen diren zarata-mapak egiteari dagokionez, ebaluazio akustikoa egiteko, taula honetako balioak hartuko dira kontuan, zeinek lurraren gaineko 4 m-ko altuerako erreferentzia jasotzen baitute.

Bestalde, 4. faseko ZEP honetan kontuan hartu beharreko beste figura bat eremu lasaiak deiturikoak dira.

Honela definitzen ditu Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legeak:

- Aglomerazioetako eremu lasaiak: indize akustiko jakin baten balioa gainditzeko ez duten espazioak; Gobernuak finkatuko du balioa.
- Aire zabaleko eremu lasaiak: trafikotik, industria-jardueretatik edo kirol- eta jolas-jardueretatik sortutako zaratak eragiten ez dien eremuak.

1367/2007 Errege Dekretuaren 14.4 artikularen arabera, aglomerazioetako eta eremu irekiko eremu lasaiei aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburua da eremu horietan II. eranskineko A taulan ezarritako zarata-immisioaren indizeen balioen azpitik mantentzea soinu-mailak, 5 dezibel murriztuta, eta garapen jasangarriarekin bateragarria den kalitate akustiko onena mantentzen saiatzea.

3. ESPARRUAREN ETA EREMU LASAIEN DESKRIBAPENA

Arabako Foru Aldundiak, Zaratari buruzko 2002/49/EE Europako Zuzentarauari eta 213/2012 Dekretuari erantzunez, Arabako Foru Aldundiaren errepide-ardatz hauen zarata-mapak egin ditu:

- Estatuko legeriak ezarritako epeen mende dauden zatiei Mapa Estrategikoaren Unitate (MEU) esaten zaie.
- Autonomia-erkideko legeriaren mendekoei, berriz, Mapa Autonomikoaren Unitate (MAU) esaten zaie.

Azpimarratzekoa da Estatuko legeriaren mende dauden errepide guztiak, horrez gain, autonomia-erkidegokoaren mende daudela; izan ere, kasu guztietan 6.000 ibilgailu baino gehiago igarotzen dira.

1. taula: Aztertutako errepideak

MEU	MEU kodea	Hasierako KPa	Amaierako KPa
UME A-1-1	C_EUS_01_A-1-001	321,7	329,45
UME A-1-2	C_EUS_01_A-1-002	336,15	391,69
UME AP-1-2	C_EUS_01_AP-1_002	77,3	85,1
UME AP-1-1	_EUS_01_AP-1_001	100	114,23
UME N-102	C_EUS_01_N-102	342,79	347,74
UME N-104	C_EUS_01_N-104	353,98	358,34
UME N-124	C_EUS_01_N-124	24,535	38,57
UME N-240	C_EUS_01_N-240	4,57	16,61
UME N-622	C_EUS_01_N-622	3,97	23,32
MAU A-624		40,21	40,45
UMA A-625		356,35	358,38
UME A-625	C_EUS_01_A-625	361,22	371,85
UMA A-625		371,85	372,58
UME A-2126	C_EUS_01_A-2126	58,1	59,94
UME A-2522	C_EUS_01_A-2522	47,3	47,55
UMA A-3302		13,91	14,30
UME A-3638	C_EUS_01_A-3638	49,98	50,94
UME AP-68	C_EUS_01_AP-68	22,39	77,6


Arabako Lurralde Historikotik 14 MEU eta 4 MAU igarotzen dira guztira.

Ekintza Plana aztertutako foru-errepide guztietan aplikatzekoa denez, ondorengo taulan identifikatzen dira aztertutako bide-zatiek zeharkatzen dituzten udalerriak.

2. taula: MEUak eta MAUak zeharkatzen dituzten udalerriak

	A-1	A-1	A-2126	A-2522	A-3638	A-624	A-625	AP-1	AP-1	AP-68	N-102	N-104	N-124	N-240	N-622	A-3302
	MEU A-1-001	UME A-1-002	MEU A-2126	UME A-2522	UME A-3638	UMA	MEU A-625 UMA	MEU AP-1_001	MEU AP-1_002	MEU AP-68	MEU N-102	UME N-104	UME N-124	UME N-240	UME N-622	UMA
Agurain		X														
Amurrio						X	X			X						
Arminón	X							X	X				X			
Arratzua- Ubarrundia		X						X						X		
Asparrena		X														
Aiara							X									
Barrundia		X														
Berantevilla										X			X			
Burgelu		X														
Erriberagoitia										X						
Iruña Oka		X									X					X
Iruraitz-gauna		X														
Kuartango										X						
Bastida													X			
Laudio				X	X		X									
Legutio								X						X		
Oion			X													
Donemiliaga		X														
Erriberabeitia	X							X	X							
Urkabustaiz										X						
Gasteiz		X						X			X	X		X	X	
Zambrana										X			X			
Zigoitia								X							X	
Zuia										X					X	

Hurrengo irudian erakusten da non dauden kokatuta Arabako Lurralde Historikoan ZEP honen jardute-eremua osatzen duten errepede-zatiak.



1. Irudia: Zarata-mapak edo zarata-mapa estrategikoak egiteko betebeharra duten errepideak, eguneko batez besteko intentsitateari (EBI) erreparatuta.

MITERDek argitaratutako 4. faseko Zarataren aurkako Ekintza Planari lotutako datuak emateko jarraibideen arabera (2025eko otsaileko bertsioa. Zarataren aurkako Ekintza Planak. Bide-ardatz handiak), beste administrazio batzuek izendatutako eremu lasaiak identifikatu beharra dago ZEPean, baldin eta aztertutako azpiegiturak akustikoki eragiteko arriskua badago.

Zaratari buruzko Legearen 4. artikuluari hitzez hitz jarraituz, ondorioztatzen da legeria autonomikoak ezarritakoa aplikatuko dela aglomerazioetako eremu lasaiak eta eremu irekietako eremu lasaiak mugatzeko eskumena ezartzeko. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuaren 6. artikulua ezartzen du udalaren eskumena dela udalerriko hiri-eremu lasaiak mugatzea eta dagokien babes akustikoko plana definitzea. Beraz, ulertzen da agintari eskudunek gutxienez informazio hau eman behar dutela beren adierazpenean:

- Agintaritzak eskudunak plangintzan zehaztu duen eremu lasaiaren identifikatzailea edo izena.
- Aurkeztuko den azaleraren datua, dagokion eremu lasaiaren geometria, poligono edo multipoligono erako geometria erabiliz.
- Eremu lasaia izendatzea eta dagokion babes akustikoko plana justifikatzen duen dokumentazioa.

Horrela, bada, Arabako Foru Aldundiak beharrezkoak ziren urratsak egin ditu, ZEP hau garatze aldera, udalek —edo gune babestuak antolatzen eta kudeatzen dituzten agintari eskudunek— izendatutako eremu lasaiak jasotzeko.

2025eko ekainean, Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak galdetu zien, Plan honen eremuko errepideetako trafikoaren zaratak eragin diezaiekeen udal guztiei, ea bazuten izendatua eremu lasairik.

Udalerri hauen erantzunak jaso ziren:

- Iruña Okako Udaleko hirigintza-zerbitzuak, erantzunarekin batera, zarata-maparen memoria bidali zuen, eta adierazi eremu lasaiak bat datozela HAPOak definitzen dituen bizitegitarako hiri-lurzoruekin eta bizitegitarako lurzoru urbanizagarriekin.

Zarata-maparen memoriaren 11.2 kapituluak, udalerriko bost herriguneetan hiri-eremu lasai izateko baldintza betetzen duten eremuak agertzen dira.

Memoria horren ondorioetan adierazten denez, “udalerriarentzako helburu akustikotzat hartu liteke hiri-eremu lasaien balioak izatea. Horretarako, beharrezkoa izango litzateke kalitate akustikoko helburuak (KAH) gaur egun betetzen ez dituzten eremuko zarata-maila murriztea, bai eta KAHak baino 5 dB(A) gutxiago arteko zarata-maila duten eremuetakoa ere. Horrez gain, eremu irekiko eremu lasai gisa defini liteke lurzoru urbanizaezinaren zatirik handiena”.

4. faseko Zarataren aurkako Ekintza Planari lotutako datuak emateko jarraibideetan eta 213 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ez da ulertzen zarata-maparen memorian egindako adierazpen horien bidez eremu lasaiaren izendapenik egiten denik.

Ohar hori gorabehera, aztertu da zer eragin izan litekeen Iruña Okako Udalaren arabera hiri-eremu lasaien baldintza betetzen duten eremuen gainean —udalerriko bost herriguneetan—, eta ondorioztatu da aztertutako errepideen zaratak ez duela eraginik eremu horietan.

- Gasteizko Udalaren jasangarritasun-, klima- eta energia-zerbitzuak erantzun du gaur egun 18 hiri-eremu lasai (HEL) daudela definituta eta mugatuta aglomerazioetan, baina ez daudela izendatuta.

Bestalde, "Gasteizko Soinu Giroa Hobetzeko Ekintza Plana (PAMAS) 2024" dokumentuak, A2 lerroan (Hiri akustikoki osasungarria), adierazten du plan hau

egikaritzen den bitartean eremu lasaiak izendatuko direla eta dagokien babes-plana onartuko dela.

Beraz, ez da ulertzen izendatutako eremu lasairik dagoenik Gasteizko Udalak jasotako dokumentazioan, baina, aurreko kasuan bezala, aztertu da zer eragin izan litekeen Gasteizen eremu lasai gisa mugatutako eremuetan, eta kasu bakarrean ondorioztatu da eragina duela aztertutako errepideen zaratak: HEL – Eratzun Berdean.

- Armiñongo Udalak jakinarazi du udalerrian ez dagoela eremu lasai izendaturik.

4. AGINTARITZA ARDURADUNA

Alde batetik, Arabako foru-errepideak foru-eskumeneko azpiegitura dira, eta, beraz, zaratari buruzko 37/2003 Legearen 4.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, autonomia-erkidegoko legeriak xedatzen duenaren arabera ezarriko dira eskumen-eskuduntzak; kasu honetan, 213/012 Dekretuak xedatzen duenaren arabera.

Dekretu horren 5. artikulua —foru-aldundien eskumenei buruzkoak— zehazten du foru-aldundiek dutela zarata-mapak eta ekintza-planak egiteko eskumena, besteak beste.

Bestalde, ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2002/49/EE Zuzentarauan oinarrituta —zeina 37/2003 Legearen eta 1513/2005 Errege Dekretuaren bidez Estatuko araudira ekarri baita—, Arabako foru-errepideetan ere zarata-mapa estrategikoak eta ekintza-planak egiteko eskakizunak bete behar dira.

Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Sailaren Errepideen Zerbitzua da Zarataren aurkako Ekintza Plana egiteko azterlanaren arduraduna eta zuzendaria.

5. ZARATA KARTOGRAFIATZEKO LANAREN EMAITZEN LABURPENA.

Arabako Lurralde Historikoaren foru-sareko errepideetako zarata-mapa estrategikoetan (4. fasea) —Urtarrilaren 20ko 29/2023 Foru Agindua bidez onetsiak— eta Arabako Lurralde Historikoaren foru-sareko errepideetako zarata-mapetan (4. fasea) —Gobernu Kontseiluaren abenduaren 19ko 850/2023 Foru Erabakiaren bidez onetsiak— lortutako emaitzen arabera, hau da zarataren esposiziopean dagoen populazioa.

5.1 Zarataren Mapa Estrategikoen emaitzak

Atal honetan zehazten dira Mapa Estrategikoko Unitate (MEU) bakoitzerako egindako kalkulu akustikoen emaitzak —populazioari dagozkionak—.

Zarata-mapa estrategikoen (ZME) kalkuluek errepideen eragina bakoitza bere aldetik hartzen dute kontuan, eta ezin da baloratu errepide batek baino gehiagok eremu berean duten eragin konbinatua.

Aplikazio-jarraibideen arabera, beharrezkoa da aglomerazio barruko emaitzen eta kanpoko artean bereiztea, betiere Zaratari buruzko 2002/49/EE Europako Zuzentarauan definituta dauden bezala. Arabako Lurralde Historikoan, Gasteizko udalerrria bakarrik hartzen da aglomeraziotzat.

Taula honetan aurkezten da, MEU bakoitzeko, **aglomerazioetatik kanpo** zarataren esposiziopean dagoen pertsona-kopurua, Le, La eta Lg (ehunekotan adierazia) adierazleen arabera, guztiak lurzoruaren mailatik 4 metroko altueran kalkulatuak.

3. taula: ZME Aglomerazioetatik kanpo esposiziopean dagoen populazioa Leguna, Larratsaldea eta Lgaua (ehunekotan)

UME	Ldia			Ltarde			Lnoche			
	65-69	70-74	>75	65-69	70-74	>75	55-59	60-64	65-69	>70
A-1_001	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
A-1_002	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
AP-1_001	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
N-102	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
N-104	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
N-124	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
N-240	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
N-622	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
A-625	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
A-3638	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0
A-2126	1	0	0	0	0	0	1	0	0	0
A-2522	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
AP-68	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
AP-1_002	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0

Kalkulu horiekin, A-2126 eta A-3638 errepideekin lotutako gairak baino ez dira identifikatzen.

Kontuan izan behar da 50 pertsona arteko balioak 0 baliora biribilduta daudela.

5.2 Zarata-mapen emaitzak

Atal honetan zehazten dira zarata-mapetarako egindako kalkulu akustikoen emaitzak, esposiziopeko populazioari dagozkionak. Zarata-mapa horietan, MEU eta MAU guztiak sartuta daude. 213/2012 Dekretuari erantzuteko kalkuluak egiteko, 6.000 ibilg./egun-etik gorako EBla duten errepideen eragin metatua hartzen da kontuan, hargailuak eraikin bakoitzeko altuera guztietan izanik. Emaiza horri MEUen eta MAUen zarata-mapa jarraitua esaten zaio.

Taula honetan aurkezten da, udalerri bakoitzeko, zarataren esposiziopean dagoen pertsona-kopurua, Le, La eta Lg (unitatetan adierazia) adierazleen arabera, guztiak ere eraikin bakoitzeko altuera guztietan hargailuak daudela onartuta kalkulatuak.

4. taula Zarata-mapak. Esposiziopeko populazioa Leguna, Larratsaldea eta Lgaur (unitateak).

Municipio	Ldia			Ltarde			Lnoche			
	65-69	70-74	>75	65-69	70-74	>75	55-59	60-64	65-69	>70
Agurain/Salvatierra	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Aiara/Ayala	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Amurrio	9	0	0	4	0	0	13	2	0	0
Armiñon	1	0	0	1	0	0	5	2	0	0
Arratzua-Ubarrundia	1	0	0	0	0	0	2	0	0	0
Asparrena	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Barrundia	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0
Berantevilla	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0
Elburgo/Burgelu	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Erriberagoitia/Ribera Alta	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0
Iruña Oka/Iruña de Oca	0	0	0	0	0	0	3	0	0	0
Iruraiz-Gauna	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Kuartango	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Labastida/Bastida	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0
Laudio/Llodio	50	7	0	40	0	0	47	32	0	0
Legutio	7	0	0	1	0	0	29	1	0	0
Oyón-Oion	54	0	0	0	0	0	62	0	0	0
Ribera Baja/Erriberabeitia	0	0	0	0	0	0	2	0	0	0
San Millán/Donemiliaga	0	0	0	0	0	0	4	0	0	0
Urkabustaiz	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Vitoria-Gasteiz	39	14	0	28	7	0	44	18	7	0
Zambrana	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Zigoitia	0	0	0	0	0	0	2	0	0	0
Zuia	1	1	0	1	0	0	2	1	0	0

Gainera, Gasteizko udalerriak, Arkautiko herrigunean, egunez 60-65 dBA tarteko esposizioa duen ikastetxe bat du.

Zarata-mapa jarraituen emaitza horiek hartzen dira oinarri osoentzat esposiziorik handieneko eremuak identifikatzeko eta lehentasunezko jarduketa-eremuak definitzeko, zeinak dokumentu honen azken ataletan aurkezten baitira.

Izan ere, batetik, modu metatuan hartzen dute kontuan aztertutako errepide guztien eragina; bestetik, esposiziopeko populazioaren kalkulua aldi bakoitzeko zarata-mailen arabera egiten da, eta bizitegi-eraikin bakoitzaren altuera guztietan. Horregatik, onartzen da emaitzak hobeki adierazten duela errealitatea.

5.3 Esposiziorik handieneko eremuen identifikazioa

Ekintza Plan hau egiteko, oinarritzko informazioetako bat zarata-mapen emaitzak dira. Izan ere, kalitate akustikoaren helburu-balioak betetzen ez dituzten eremuak identifikatzeko aukera ematen dute, bai eta inpaktuak hierarkizatzen laguntzekoa ere.

Atal honen helburua da, soilik esposizio-mailan oinarritutako irizpideetatik abiatuta, erasan akustikorik handiena duten eremuak identifikatzea. Horretarako, udalerria baino beheagoko unitateen arabera analiza egiten da. Eremu horietan afekzioa trinkoagoa da, eta honako hauek hartzen dira kontuan: hartzailearen soinu-mailak eta esposiziopeko populazio-kopurua. Hurrengo taulan, eragindako eremuak agertzen dira —28 eremu guztira—. Horrez gain, batetik, kalitate akustikoko helburuak gainditzeko tarte bakoitzean gauez (ebaluazio-agertokirik okerrera delako) esposiziopean dagoen populazioa agertzen da, eta, bestetik, egunez KAHak betetzen ez dituzten eraikin sentikorrik badagoen edo ez adierazten da.

5. taula . Potentzialki eraginpean dauden eremuak, zarata-mapetako emaitzen arabera.

ARDATZA	Udalerria	Kokapena	L _{gaur}				L _{gaur}		Eraikin sentikorrik	
			55-59	60-64	65-69	> 70	Lg > 55	Lg > 65	Inguruan daudenak	Le > 60
A-624	Amurrio	Amurrio, Ugarte	5	0	0	0	5	0	Ez	Ez
A-625	Amurrio	Amurrio, eraikin sakabanatuak	5	2	0	0	7	0	Ez	Ez
Ap-68	Amurrio	Eraikin sakabanatuak	3	0	0	0	3	0	Ez	Ez
A-1	Armiñón	Armiñón	5	2	0	0	7	0	Bai (urruti)	Ez
N-240	Arratzua-Ubarrundia	Luku	2	0	0	0	2	0	Ez	Ez
A-1	Barrundia	Patioko Benta	1	0	0	0	1	0	Ez	Ez
N-124	Berantevilla	Lacorzanilla	1	0	0	0	1	0	Ez	Ez
Ap-68	Erriberagoitia	Subilla Morillas	1	0	0	0	1	0	Ez	Ez
A-1	Iruña Oka	Eraikin sakabanatuak	3	0	0	0	3	0	Ez	Ez
N-124	Bastida	Eraikin sakabanatuak	1	0	0	0	1	0	Ez	Ez
A-3638	Laudio	Laudio	47	32	0	0	79	0	Ez	Ez
N-240	Legutio	Legutio erdigunea	20	0	0	0	20	0	BAI	Ez
N-240	Legutio	Eraikin sakabanatuak	5	0	0	0	5	0	Ez	Ez
N-240	Legutio	Urbina	4	1	0	0	5	0	Ez	Ez
A-2126	Oion	Oion	62	0	0	0	62	0	Ez	Ez
A-1	Erriberabeitia	Venta del Bullón	2	0	0	0	2	0	Ez	Ez
A-1	Donemiliaga	Egilatz	4	0	0	0	4	0	Ez	Ez
N-622	Zigoitia	Zaitegi	2	0	0	0	2	0	Ez	Ez
AP-68	Zuia	Eraikin sakabanatuak	2	1	0	0	3	0	Ez	Ez
N-104	Gasteiz	Itarratza	7	0	0	0	7	0	Ez	Ez
N-104	Gasteiz	Arkauti	9	0	0	0	9	0	BAI	BAI
N-622	Gasteiz	Arangiz	7	7	2	0	16	2	Ez	Ez
N-240	Gasteiz	Gamarra Nagusia	9	9	5	0	23	5	BAI	Ez
N-102	Gasteiz	Ariñiz sakabanatuak	9	0	0	0	9	0	Ez	Ez
A-1	Gasteiz	Aztegieta	1	0	0	0	1	0	Ez	Ez
N-240	Gasteiz	Eraikin sakabanatuak	0	1	0	0	1	0	Ez	Ez
N-622	Gasteiz	Eraikin sakabanatuak	1	1	0	0	2	0	Ez	Ez
A-1	Gasteiz	Eraikin sakabanatuak	1	0	0	0	1	0	Ez	Ez

OHARRA: Gogoan izan esposiziopeko pertsona-kopuruaren balioak unitatetan adierazita daudela eta zarataren mapa estrategikoenak, berriz, ehunekotan.

Bestalde, ZEPa garatzean kontuan hartu behar da lurraldean zehar sakabanatutako familia bakarreko etxebizitza dela Arabako Lurralde Historikoan erasan akustikoa duen tipologiarik ugariena.

6. AURREKO PLANA BETETZEA

“Arabako foru-errepideetako zarataren aurkako Ekintza Plana. 1513/2005 Errege Dekretua eta 213/2012 Dekretu Autonomikoa betetzea. 2016-2025 aldia” dokumentuan adierazten den bezala, hau da planaren jarraipen-adierazlea: aurreikusitako jarduketaren artean egikaritu direnen ehunekoa.

Hurrengo taulan, zerrendatzen dira plan horretan jasotako neurriak eta haien garapen-egoera.

6. taula . Lehenetsunezko jarduketa-eremuen betetze-maila (2016-2020).

Lehenetsunezko jarduketa-eremua			Soluzioa	Garapenaren egoera
LJE 1	N-622	Arangiz - Gasteiz	Pantaila akustikoa	Eraikuntza-proiektua amaituta. Egikaritzeko aurreikuspena: 2026
LJE 2, 1. EREMUA	N-622	Ametzaga - Zuia.	Ametzagako pantaila akustikoa	Eginda
LJE2, 2. EREMUA	N-622	Sarria-Zuia.	Sarriako pantailak	Eginda
LJE 2, 3. EREMUA	N-622	Murgia - Zuia.	Barne-giroa babesteko jarduketak	Eginda
LJE 3	N-102	Ariñez - Gasteiz	Pantaila akustikoa	Eraikuntza-proiektua amaituta. Obren lizitazioa egiten ari da.
Betetzearen ebaluazioa	% 60			

Taula honetan jasotakoaren arabera, eta erabat amaituta dauden jarduerak bakarrik kontuan hartuta, aurreko planean lehenetsitako neurrien % 60 bete dira.


Hala ere, nabarmendu behar da betetzearen % 100era iristeko egiteko dauden neurriek —1. LJE eta 3. LJE neurriei lotutakoek (bi kasuetan, pantaila akustikoak jartzean dautza)— Arabako Foru Aldundiak behin betiko onartutako egikaritze-proiektua dutela gaur egun, eta 2026an egikaritzea aurreikusten dela. Bi jarduerak gauzatuta, aurreko planaren % 100 betetzen da.

“Arabako foru-errepideetako zarataren aurkako Ekintza Plana. 1513/2005 Errege Dekretua eta 213/2012 Dekretu Autonomikoa betetze. 2016-2020 aldia” dokumentuan planteatutakoarekin bat etorriz, era jarraituan garatzen ari dira eragindako ingurunekeo zarata-mailak murrizteko jarduerak.

Foru-errepideen sareko Zortasun Akustikoko Eremua (ZAE) kudeaketa-tresna bat da, eta, haren bidez, bateragarri egin daiteke foru-errepideen funtzionamendua lurzorua erabilerekin, jarduerekin, instalazioekin eta etorkizuneko edo lehendik dauden hirigintza-garapenekin.

Hasiera batean ZAEk indarraldi mugagabea izango du, baina indarrean dagoen legeriak aurreikusten du justifikatutako arrazoiak daudenean hura eguneratzea. Horrela, kudeatzeak eskatzen du garatzea, eguneratzea eta administrazio eskudunei jakinaraztea.

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 8ko 571/2024 Erabakiaren bidez, behin betiko onartu zen “4. fasean ofizialki onartutako zarata-mapa duten Arabako foru-sareko errepideen zortasun akustikoko eremuaren mugaketa”. Zortasun akustikoko eremuaren mugaketa horrek, 2024an onartuak, 2018an aurretik onartutakoa ordeztzen eta eguneratzen du; hain zuzen, errepide-zati berriak sartzen ditu eta 4. faseko zarata-mapetarako erabilitako kalkulu metodo bera erabiltzen du (ohiko CNOSSOS-EU kalkulu-metodoa).



2. irudia: Arabako Foru Sareko zortasun akustikoko eremua.

213/2012 Dekretuaren 30.3 artikuluan zehaztutakoaren arabera, ZAEan hirigintza-garapena egiten denean, dagokion hirigintza-tresnari hasierako onarpena eman aurretik, Toki Administrazioak dekretu horren 37. artikuluan aipatutako azterketa akustikoari buruzko dokumentazioa igorri beharko dio haren titularra den pertsonari edo erakundeari (kasu honetan, AFA), nahitaezko txostena egin dezan dekretu honetan aurreikusitako kutsadura akustikoaren erregulazioari buruz.

7.2 Foru-errepideetako zarata-mailei buruzko kexa eta erreklamazioei erantzutea

Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Sailaren Errepideen Zerbitzuak jasotzen eta erantzuten ditu hirugarren pertsonen foru-errepideen ingurumen-portaerari buruz aurkeztutako kexak, iradokizunak eta informazio-eskaerak.

Zarata da ingurumen-alderdi nabarmenetako bat, eragin zuzena baitu herritarren bizikaltatean. Dokumentu honen hurrengo ataletan aurkezten diren jarduerak kontuan hartzen dituzte identifikatutako kexa guztiak.

2025-2029 aldirako Ekintza Plan honek herritarrekiko komunikazioa ere bultzatuko du —kexak kudeatzeko sistemaren eta EAEko ingurumen- eta akustika-legeriak ezarritako ingurumen-informaziorako bideen bidez—: zaratari buruzko herritarren erreklamazioak aztertuko ditu eta erantzuna emango die. Etengabe ematen da zerbitzu hau.

7.3 Zarata txikiagoa igortzen duen zoladura.

Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila berritzen ari da trafiko handieneko errepideetako erroadura-geruzen zoladura, BBTM 11 B (M10) nahaste bituminoso etenen bidez.

Zoru-mota horren bidez aurreikusten da portaera akustikoa hobetu egingo dela; izan ere, hutsune-kopuru handia duenez, AC motako nahaste bituminoso jarraituek baino erroadura-zarata gutxiago igortzeko gai da potentzialki.

Hain zuzen, sonoritate txikiko erroadura-geruzen artean sartua dago¹, eta IDRRIM (Institut des Routes, des Rues, et des Infrastructures pour la Mobilité) zentro frantsesaren gidak erreferentziazko zoladurarekiko zarata-murrizketa ezin hobearekin kalifikatzen du (2-3 dB-tan kuantifikatzen du soinu murrizketa).

7.4 Unean uneko problematiken azterketa

Lan-ildo horren adibide bat da dilatazio-junturak daudenean zarata areagotzen delako efektua aztertzea. Errepideko irregulartasunen gainean zirkulatzeak areagotu egiten du trafikoaren erroadura-zarata.

¹ Eusko Jaurlaritzako Bide-zoruen Lan-mahaiaren dokumentaziotik ateratako datuak.

Inguruneko zarata kalkulatzeko metodo ofizialak (CNOSSOS-EU) ez du islatzen dilatazio-junturek errepideen errodadura-zaratari egiten dieten ekarpen gehigarri hori. Beraz, zarata-mapen ondoriozko diagnostikoak, metodo ofizialarekin kalkulatuta, ez du aintzat hartzen dilatazio-juntura bat egoteagatik zarata-mailak areagotu daitezkeenik, ezta efektu horren ondoriozko esposizio-gehikuntza ere.

ZEPa garatzeko, azterketa espezifiko bat egin da Berantevilla inguruan, horri buruzko kexak jaso baitira. Kuantifikatu da zer ekarpen egiten dieten zubibide bateko dilatazio-junturek inguruko eraikinek jasaten dituzten zarata-mailei, eta egiaztatu da eremu horretako zarata-mailak ez daudela kalitate akustikoko helburuen gainetik.

8. EKINTZA PLANAREN ERAGINPEKO LURRALDE-EREMUARI LOTUTAKO BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUK

Ekintza-planaren eraginpeko lurralde-eremuarekin lotutako beste plan eta programa batzuei dagokienez, onartzen da planean aipatutako jarduketek kontuan hartzen dituztela edo izango dituztela, plana garatzean, errepideen lurralde-planak eta udalerriek garatutako gainerako zarataren aurkako ekintza-planak.

8.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra 2017-2028, 63/2020 Dekretuaren bidez onartua.

Dokumentu honen azken helburua da Planaren xede den sarean 2017-2028 aldian gutxienez egin beharreko aurreikuspenak, helburuak, lehentasunak eta hobekuntzak zehaztea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sareekin behar bezalako koordinazioa ziurtatuz. Sare hori lehentasunezko intereseko sareko errepide guztiek eta oinarritzko sareko errepide batzuek osatzen dute.

Dokumentu honek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterlan bat jasotzen du, zeinean zarata arintzeko programa bat sartzen baita ingurumen-inpaktuaren prebentzio-eta zuzentze-neurrien artean.

Arabaren kasuan, honako errepide-zati hauek hautatu dira lehentasunezkoztat programa honen barruan:

- N-I errepidea, Gasteizko ingurabidean, zati luze bat da, trafiko-karga handikoa eta ibilgailu astunen indize handikoa. Errepide bazterrean isolatuta dauden bizitegi-gune batzuetan eragina izan dezake.
- N-240 errepidea, Legution, trafiko-karga handiko bide bat da, ibilgailu astunen indize handikoa. Herri baten eta aisialdi-gune batzuen aldamenetik igarotzen da.
- N-622 errepidea, Ametzagan eta Murgian, trafiko-karga handiko bide bat da (ibilgailu astunen indize handikoa). Zenbait herriren aldamenetik igarotzen da.
- A-625 errepidea, Laudion eta Amurrión, trafiko-karga handiko bide bat da, herri batzuen aldamenetik igarotzen dena.

- N-104 errepidea, Elorriagaren eta Gasteizko irteeraren artean, ingurumen- eta paisaia-kalitate handiko natura-eremuetan txertatua dago.
- A-132 errepidea, Azazetako mendatea igaro eta Santikurutze Kanpezu arte, ingurumen- eta paisaia-kalitate handiko natura-eremuetan txertatua dago.

8.2 2016-2027 aldirako Arabako Errepideen Plan Integrala (AEPI), martxoaren 30eko 6/2019 Foru Arauaren bidez behin betiko onartua.

Dokumentu honetan biltzen dira Arabako Lurralde Historikoan foru-sareko bide-azpiegituren arloan garatzen diren jarduketak guztiak, bai eta hura barne hartzen duten ingurumen-programak ere.

Jarraian, 2019-2027 aldirako Arabako Errepideen Plan Integralaren atalak berrikusiko ditugu, zeinean kutsadura akustikoaren aldagaia berariaz aipatzen baita:

Apartatua	Zarataren aurkako Ekintza Planarekiko lotura
9. Diagnostikoa eta esku hartzeko premiak	Errepideak ingurunean duen ingurumen-integrazioari dagokionez, bide-sarearen ingurumen-ebaluazioa hartu da erreferentziazat, eta zatiz zati aztertu dira haren premiak faktore hauei dagokienez: habitaten zatiketa, isurketa kutsatzaileen arriskua, ingurumena leheneratzea eta paisaia integratzea, eta trafiko-zaratak pertsonen eragindako eragozpenak. Ingurumena hobetzeko esku-hartzeak definitzeko lehen urrats gisa, problematika horiek xehetasunez ezagutzeko programa bat ezarri da (hori eskatzen du ingurumen-baldintzen azterketak).
11. Jarduteko proposamenak	Errepidearen ingurua egokitzeko eta hobetzeko kontserbazioak eragiketa-multzo bat biltzen du, eta haien artean zarata murriztea dago. Kontserbazioaren esparru normala gainditzen dute eragiketa horiek. Ez dute inbertsio berri handirik eskatzen eta zerbitzuaren maila hobetzen dute.
11.2. Oinarrizko sarean jarduteko proposamenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorren esparruan	Obra Nagusiaren eta Azpiegitura Berrien programan, Arkautin A-132 eta N-104 errepideen arteko lotura berria —jada aipatua— eraikitzea mugatzen da oinarrizko sarean aurreikusitako azpiegitura berri bakarra. Jarduketa hori ingurumen-kalitate baxuko testuinguruan kokatzen da; hala ere, proiektuan kontuan izango dira zarataren balizko eragina eta nekazaritza-lurzoruek izan dezaketen afekzioa.
13. Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa	Errepideak ingurunean duen ingurumen-integrazioari dagokionez, egungo bide-sarearen ingurumen-ebaluazioa hartu da erreferentziazat, eta zatiz zati aztertu dira haren premiak faktore hauei dagokienez: habitaten zatiketa, isurketa kutsatzaileen arriskua, ingurumena

	leheneratzea eta paisaia integratzea, eta trafiko-zaratak pertsonen eragindako eragozpenak. Ingurumena hobetzeko programa hauek diseinatu dira: - Errepideetako habitaten zatiketa murrizteko programa. - Errepideen ingurumena leheneratzeko eta paisaia integratzeko programa. - Trafiko-zarataren eragozpenak gutxitzeko programa.
--	---

Trafiko Zarataren Eragozpenak Murrizteko Programak (TZEM) Ekintza Planeko dokumentu hau garatzeko oinarritzko irizpideak ezartzen ditu.

Haren helburua da errepideetako ibilgailuen trafiko-zaratak pertsonen bizi-kalitatean izan dezakeen eragina ebaluatzea eta diagnostikatzea, eta eragozpenak murrizteko askotariko esku hartze-neurriak proposatzea.

Programa horren xede dira Errepideen Planeko EsAEren bidez (Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren Azterlana) garatu den bide-sarearen ingurumen-diagnostikoa identifikatzen dituen eremuak, arreta bereziki jarritz trafiko-fluxu handiko errepide-zatien ertzetan biztanle gehien dituzten eremuetan, bai eta Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-politikak adierazten dituen lehentasuneko eremuetan ere. Hauek dira trafiko-zarataren eragozpenak gutxitzeko xede-eremuak, lehentasunaren arabera ordenatuta:

- Bizitegi-eremuak, trafiko astunaren indize altuko errepide-zatien inguruan.
- Bizitegi- eta ekipamendu-eremuak, edukiera handiko bideen ertzetan.
- Bizitegi-eremuak, AEPIren diagnostikoaren arabera Hirikoa ingurumen-kategoria duten errepide-zatien inguruan.

Bizitegi-eremuen aldamenean dauden xede-sareko zati askotan narriadura larriko soinu-profila agertzen da, ibilgailu astunen indize altuko trafiko ugaria pasatzearen ondorioz, eta hori zuzendu egin behar da.

Faktore hauen arabera eragina izango du trafikoak jendea bizi den eremuetako soinu-mailetan: trafikoaren osaera (arinak edo astunak, sestraren malda), haren orduen arabera banaketa, zeharkako sekzioa, ertzen erliebea eta oztopoen presentzia, bai eta hartzailearen esposizioa ere. Alderdi horiek guztiak xehetasun-eskala egokian aztertu behar dira.

“Arabako foru-errepideetako zarataren aurkako Ekintza Plana. 1513/2005 Errege Dekretua eta 213/2012 Dekretu Autonomikoa betetzea. 2016-2020 aldia” dokumentuaren ondorioak programa honetan erabili dira, kontuan hartu beharreko lehentasuneko zatiak hautatzeko. 2016-2027 aldian, 3,70 M€-ko guztizko aurrekontu-inbertsioa egingo da zaratak eragindako eragozpenak murrizteko.

8.3 Udal mailako Zarataren aurkako Ekintza Planak

- "Gasteizko Soinu Giroa Hobetzeko Ekintza Plana (PAMAS) 2019-2023" (onartua) eta "Gasteizko Soinu Giroa Hobetzeko Ekintza Plana (PAMAS) 2024" (onartzeko fasean). Biztanleriaren esposizioaren laburpenean adierazten duenez, *landa-udalerrri batzuetan badaude errepideetatik hurbil dauden etxebizitzak, errepideko trafikoaren esposiziopean daudenez erasanak izan daitezkeenak. Zehazki, honako hauek dira esposiziorik handiena duten etxebizitzak: **Ariñez** udalerrian, N-102 errepideak eragindakoak; **Arangizen**, N-622 errepideak eragindakoak; **Gamarra Nagusian**, N-240 errepideak eta A-I autobiak eragindakoak; eta **Elorriagan** eta **Ilarratzan** N-104 errepideak eragindakoak*. Kalkulatu da ukitutako biztanleen % 1 baino gutxiagori eragiten diola errepideetako zaratak.

Gasteizko 2019-2023 aldirako PAMASeko LA-1 jarduketa-ildoak jarduketak ezartzen ditu: *"zarata-mapa estrategikoan jasotako zarata-foku guztiekin — errepideak barne— lotutakoak, herritarren esposizioa murrizten joateko; horretarako, zarata-mailak murriztea dakarten jarduketak egin behar dira"*. Adierazten denez, Udalaren eskumenekoak ez diren fokuei heltzeko, beharrezkoa izango da foku horien kudeatzaileak PAMASean sartzea, haren ekintza-planekin eta sortzen dituzten inpaktuen bilakaeraren jarraipenarekin koordinatzeko.

Babes akustiko bereziko zonako plan batzuetan (2021koan) adierazten da harreman-ekintza bat aurreikusi beharko dela Arabako Foru Aldundiarekin, honako eremu hauetan igorpena murrizteko beharrezkoak diren ekintzak egiteko: A-2124 errepidean, 6. babes akustiko bereziko eremuan (HEGOALDEKO KANPO-ERAZTUNA), eta, N-104 errepidean, 7. babes akustiko bereziko eremuan (EKIALDEKO KANPO-ERAZTUNA),.

8. babes akustiko bereziko eremuko (Tokiko Erakunde Txikiak, TEK) planean, eremuko plan bat jasotzen da errepideko trafikoaren zaratarako. Bertan, jarduketa hauek zehazten dira:

- 1) Ariñezen eta Arangizen pantaila akustikoak jartzea
- 2) Soluzioak aztertzea, xehetasunez ebaluatzeko, eta, kasua bada, KAHak gainditzea ekiditeko, A-I errepidearen zaratagatik Gometxan, Lermandan, Gamarra Nagusian eta Lubianon.
- 3) Trafiko handiko errepideek herriguneak zeharkatzean sortzen duten inpaktua murrizteko irtenbideak aztertzea, honako hauetan: Asteguieta, Gamarra Nagusia, Ilarratza, Matauko eta Andollu.
- 4) Abiadura 30 km/h-ra mugatzea, babes akustiko bereziko eremu (BABE) osoan, zirkulazio-intentsitate txikiko errepideek herrigune hauek zeharkatzean: Mandoia, Erretana, Miñao Txikia, Zerio, Oreitia, Argandoña, Otazu, Gamiz, Bolibar, Ullibarri Nagusia, etab.
- 5) TEK hauetako hiri-kaleetan abiadura 30 km/h-ra mugatzea: Ariñez, Zuhatzu Gasteiz, Lermanda, Abetxuko, Betoño, Gamarra Nagusia, etab.

- Amurrioko Zarataren aurkako 2022ko Ekintza Planak. Bertan jasotzen den neurri baten (09. fitxa) helburua da toki-administrazioak herritarrak zaintzea bere eskumenekoak ez diren ibilgailu-azpiegituren ingurumen-zarataren aurrean, beste administrazio batzuekin koordinatuz prebentzio- eta zuzentze-neurriak ezarrita, hala nola pantailak.

9. PROIEKTU BERRIAK

Jarraian, proiektu batzuk zerrendatzen dira, zeinak plan honetan aztertutako errepideetako trafiko-zarataren esposizioak handiena duten eremuetako batzuei eragiten baitiete.

N-104 errepidea, Arkautiko herrigunea zeharkatzean

“Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmena, elkarri transferitzeko hiri-bilbean sartuta geratu diren errepide-zatiak eta errepideen foru-sarearen lotune diren biribilguneak” dokumentuaren arabera, Gasteizko Udalar eskualdatuko zaio N-104 errepidearen zati hau: gaur egun A-132 errepidearekin duen mugatik Arkautiko herrigunearen parean egingo den biribilgunerainokoa. Hain zuzen, Gasteizko HAPNari jarraituta biribilgune hori Iliada pasealekuarekin lotzen duen bide perimetrala eraiki eta zerbitzuan jartzen denean eskualdatuko da.



Bide perimetral horrek —zeinaren eraikuntza-proiektua idazten ari baitira— ahalbidetuko du, batetik, Arabako Foru Aldundiak errepidearen titulartasuna udalaren alde transferitzea, eta, bestetik, trafikoa nabarmen murriztea egungo N-104 errepideak Arkauti zeharkatzen duenean; izan ere, bide perimetrala iraupen laburragoko bide alternatibo bat izango da, eta, gainera, eragina izango dute Arkautiko eta Elorriagako herriguneetako trafikoa murrizteko Udalak hartzeko asmoa duen neurriek.

Titulartasun-aldaketa dela eta, zehaztu beharko da zein administrazioari dagokion Arkautiko herrigunean zarataren aurkako neurri zuzentzaileak hartzea. Bestalde, trafikoa murrizteak zarataren inpaktua murriztea ekarriko du.


N-104 errepidea, Ilarrazako herrigunea zeharkatzean

2016-2027 aldirako Arabako Errepideen Plan Integralean jasota dagoenez, “Ilarrazako zeharbidea lehentasunezko intereseko N-104 errepidetik igarotzen da, 357+447 KParen eta 357+651 KParen artean. 358+992 KParen eta 359+141 KParen artean, Matauko zeharbidea aurkitzen da. Biak gatazka-maila handikoak dira, eta proposatzen da bi herriguneetan saihesbide bateratu bat egitea”.

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen hirugarren Plan Orokorrak (2017-2028) sartua dauka, Azpiegitura Berrien Programaren Edukiera Handitzeko azpiprograman, N-104 errepidean jarduketa egitea A-2134 errepidearekiko elkargunearen eta A-3110 errepidearekiko elkargunearen artean; jarduketa horretan Ilarrazako saihesbidea ere sartzen da.

2016-2027 aldirako Arabako Errepideen Plan Integralean jarduketa hori bera sartua dago, Obra Nagusiaren Programaren Edukiera Handitzeko azpiprograman.

Jarduketa horri dagokionez, dagoeneko idatzita dago “Ilarraza eta Matauko saihesbideen informazio-azterlana N-104 errepidean, A-3110 errepidearekiko lotura, sestra-aldaketaekin, eta N-104 errepideko elkarguneen eta sarbideen berrantolaketa eta kontrola, 356,300 KParen eta 363,450 KParen artean”.



Saihesbide hori egitean, nabarmen murriztuko da Ilarrazako herrigunetik igarotzen diren ibilgailuen kopurua, eta horrek kutsadura akustikoaren maila murriztuko du.

N-240 errepidea, Gamarrako herrigunea zeharkatzean

Gasteizko Udalak bidegorri bat lizitatu du, eta datozen hilabeteetan egingo du, Gasteiz eta Gamarra Nagusia kontzejua lotuko dituen, eta, N-240 errepidearen inguruan, VC2 bizikleta-bidearekin elkartuko dena (Gamarrako Atetik N-240rako bide-zatia). Bidegorri hori VC2 bizikleta-bidearekin lotuko da; VC2 bidea Arabako Foru Aldundia egiten ari da une honetan. Jarduketa hori Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) barruan dago, eta helburutzat du hiriarteko mugikortasun ez-motorizatua (bizikletaz eta oinez) sustatzea eta ahalbidetzea.

Udalaren obrak egiteko, Gamarratik gertu dauden udal-bideak antolatu eta birzolatu behar dira.

Miñako Parke Teknologikoaren lan-jarduerari lotutako eguneroko joan-etorrien fluxuaren zati bat xurgatuko du VC2 Bizikleta Bideak, eta, beharbada, trafikoa murriztu eta aldatu egingo da N-240 errepidean, Gamarrako herrigunearen parean.

VC-2a egikaritzen ari dira gaur egun, eta 2025aren amaierarako amaitzea eta zerbitzuan jartzea aurreikusten da.

N-240 errepidea, Legutioko herrigunea zeharkatzean

Arabako Foru Aldundiak azterlan hau egin du 2018ko urtarrilean: “N-240 errepidean, Legutio parean, segurtasuna eta funtzionaltasuna erabat hobetzeko aurretiazko azterlana, A-627 errepidearekiko lotunearen eta Bizkaiko Lurralde Historikoarekiko mugaren arteko zatian”.

Azterlan horretan, A-2620 eta N-240 errepideen arteko egungo elkargunea birmoldatzea aurreikusten da, eta, horren ondorioz, N-240 errepidean zoladura berrituko litzateke, dagokion zatian, 15+850 KParen eta 16+600 KParen artean. 2026ko lehen seihilekoan tramitatuko da “N-240 errepidearen eta Legutioko Santa Engrazia kalearen arteko elkargunea hobetzeko eraikuntza-proiektua, 15+850 KParen eta 16+600 KParen artean” dokumentua idaztea.

10. KALITATE-HELBURUAK GAINDITZEN DITUZTEN EREMUAK LEHENETSI

Onartutako 4. faseko zarata-mapetan hautemandako kalitate akustikoko helburuak (KAH) gainditzen dituzten eremu guztiak identifikatu ondoren, beharrezkotzat jotzen da eremu horiek lehenesteko prozesu bat egitea, kontuan hartuta Zarataren aurkako Ekintza Plana garatzeko eskuragarri dauden baliabideen mugak.

Hauek dira jarduketa-eremuak lehenesteko eta lehentasunezko jarduketa-eremuak (LJE) definitzeko irizpideak:

- Eraikinak sakabanatuta ez dauden eremuak.
- Esposiziopean 2 pertsona baino gehiago dituzten eremuak (L_{gaua} balioak, etxebizitzaren kanpoaldean, 55 dBA-ko Kalitate Akustikoko Helburua baino handiagoak).
- Soluzio bat proposatzeko bideragarritasun handia duten eremuak. Neurriak eraikitzeak erraztasuna eta kanpoko giroa babesteko pantaila akustikoa jartzeko aukera.
- Beste soinu-foku batzuen eragin nabarmenik ez duten eremuak.

Irizpide horiek kualitatiboki balora daitezke kostu/onura ratio edo adierazlearen bidez. Hain zuzen, eremua lehenetsita gera dadin, ratioaren balioak 30.000 euro/pertsona baino txikiagoa izan behar du.

Lehenesteko irizpideek gaueko aldia hartzen dute kontuan, hura baita garairik txarrena, esposiziopean dagoen populazio-kopuruari eta eperik sentikorrenari lehentasuna emateko interesari erreparatuta².

Azaldutako irizpideak aztertu aurretik, Armiñongo eremua alde batera utzi da, SAU-3 sektoreko plan partzialaren arabera garatu baitira eragindako etxebizitzak. Eremu horretan kutsadura akustikoa murrizte aldera, plan partzial horretan ezartzen da Konpentsazio Batzordea derrigortuta dagoela hesi akustikoa eta bisuala egitera. Beraz, urbanizazioaren sustatzaileari dagozkio ezarri beharreko neurriak.

Arangiz eta Ariñezeko eremuak ere baztertu egin dira, "Arabako foru-errepideetako zarataren aurkako Ekintza Plana. 2016-2020 aldia" dokumentuan jasotako neurri zuzentzaileak 2026an ezarriko direlako.

² Ingurunekeo zarataren ondorioen artean, loaren asaldura eta enbarazua da osasunean inpakturik esanguratsuena eragiten dutenetako bat, eta harekin lotzen dira bizi-itxaropenaren urteen eta urte produktiboen galerarik (DALYak) handienak. Iturria: "Burden of disease from environmental noise" WHO, JRC, 2011.

7. taula Potentzialki eraginpean dauden eremuen aurretiazko ebaluazioa.

ARDATZA	Udalerrria	Kokapena	L _{gaur}				L _{gaur}		Eraikin sentikorak		Beste iturri batzuk
			55-59	60-64	65-69	> 70	Lg > 55	Lg > 65	Inguruan daudenak	Le > 60	
A-624	Amurrio	Amurrio, Ugarte	5	0	0	0	5	0	Ez	Ez	Ez
A-625	Amurrio	Amurrio, eraikin sakabanatuak	5	2	0	0	7	0	Ez	Ez	ADIF
Ap-68	Amurrio	Eraikin sakabanatuak	3	0	0	0	3	0	Ez	Ez	Ez
A-1	Armiñón	Armiñón	5	2	0	0	7	0	Bai (urruti)	Ez	Ez
N-240	Arratzua-Ubarrundia	Luku	2	0	0	0	2	0	Ez	Ez	ADIF
A-1	Barrundia	Patioko Benta	1	0	0	0	1	0	Ez	Ez	N-104
N-124	Berantevilla	Lacorzanilla	1	0	0	0	1	0	Ez	Ez	Ez
Ap-68	Erriberagoitia	Subilla Morillas	1	0	0	0	1	0	Ez	Ez	Ez
A-1	Iruña Oka	Eraikin sakabanatuak	3	0	0	0	3	0	Ez	Ez	Ez
N-124	Bastida	Eraikin sakabanatuak	1	0	0	0	1	0	Ez	Ez	Ez
A-3638	Laudio	Laudio	47	32	0	0	79	0	Ez	Ez	ADIF + hiri-bideak
N-240	Legutio	Legutio erdigunea	20	0	0	0	20	0	BAI	Ez	Hiri-bideak
N-240	Legutio	Eraikin sakabanatuak	5	0	0	0	5	0	Ez	Ez	Ez
N-240	Legutio	Urbina	4	1	0	0	5	0	Ez	Ez	ADIF
A-2126	Oion	Oion	62	0	0	0	62	0	Ez	Ez	Hiri-bideak
A-1	Erriberabeitia	Venta del Bullón	2	0	0	0	2	0	Ez	Ez	ADIF
A-1	Donemiliaga	Egilatz	4	0	0	0	4	0	Ez	Ez	ADIF
N-622	Zigoitia	Zaitegi	2	0	0	0	2	0	Ez	Ez	A-3600
AP-68	Zuia	Eraikin sakabanatuak	2	1	0	0	3	0	Ez	Ez	Ez
N-104	Gasteiz	Ilarratza	7	0	0	0	7	0	Ez	Ez	Ez
N-104	Gasteiz	Arkauti	9	0	0	0	9	0	BAI	BAI	Hiri-bideak
N-622	Gasteiz	Arangiz	7	7	2	0	16	2	Ez	Ez	Ez
N-240	Gasteiz	Gamarra Nagusia	9	9	5	0	23	5	BAI	Ez	A-1; hiri-bideak
N-102	Gasteiz	Ariñiz sakabanatuak	9	0	0	0	9	0	Ez	Ez	Ez
A-1	Gasteiz	Aztegieta	1	0	0	0	1	0	Ez	Ez	A-3302
N-240	Gasteiz	Eraikin sakabanatuak	0	1	0	0	1	0	Ez	Ez	Ez
N-622	Gasteiz	Eraikin sakabanatuak	1	1	0	0	2	0	Ez	Ez	Ez
A-1	Gasteiz	Eraikin sakabanatuak	1	0	0	0	1	0	Ez	Ez	Ez

Aurreko taulako informazioa ikusita eta finkatutako irizpideak aplikatuta, balorazio hauek egin dira:

- Eraikinak sakabanatuta ez dauden eremuak:
Irizpide hori dela eta, baztertu egin da eraikinak sakabanatuta dituzten eremu hauei lehentasuna ematea: Amurrio, Iruña Oka, Bastida, Legutioko zati bat, Zuia eta A-1, N-622 eta N-240 errepideen afekzioa Gasteizen eta Astegietan.
- Esposiziopean 2 pertsona baino gehiago dituzten eremuak:
Irizpide horren arabera, ez dira lehenetsi eremu hauek: Luku (Arratzua-Ubarrundia), Patioko Benta (Barrundia), Berantevilla, Subilla Morillas (Erriberagoitia), Venta del Bullón (Erribera Beitia) eta Zaitegi (Zigoitia).
- Soluzio bat proposatzeko bideragarritasun handia duten eta beste soinu-foku batzuek eragiten ez dieten eremuak. Gainerako eremuak aztertu dira eta honako hauetan jarduteko aukera baztertu da:
 - o Laudio. Ugarte (A-624). Eremu hori ez da lehenesten Plan honetan. Izan ere, A-624 errepidetik oso gertu dauden eraikinak dira, bide horretatik zuzeneko sarbideak dituztenak; beraz, ezinezkoa da kanpoko zarata proiektatzeko pantaila akustikoak jartzea.
 - o Laudio (A-3638). Eremu horretan jarduteko aukerak aztertu ondoren, Ekintza Plan honetan LJE gisa sartzea baztertu da, arrazoi hauek direla medio: teknikoki korapilatsua da zubibidean pantaila akustiko bat instalatzea, inguruan hiri-bideak eta ADIFen azpiegitura daude —zeinek neurriaren eraginkortasuna mugatuko bailukete— eta etorkizunean errepide hori Laudioko Udalari lagatzeko aukera dago.

Inguruan beste zarata-foku batzuk badaudenez, Udalak izendatu behar du, kasua bada, eremu hori Babes Akustiko Bereziko Eremu gisa, eta Udalak koordinatu behar du jarduketa, inpaktua duten kudeatzaile guztien jarduerak bilduko dituen zonako plan bat definitzeko, haien ekarpen-mailaren arabera.

- Oion (A -2126). Eragindako eremu hori ez da Plan honetan lehenetsi; izan ere, hiri-zeharbide batean dago, eta irtenbide posibleak ekonomikoki eta teknikoki bideraezinak dira.
- Ilarratza (N-104). Eremu hori ez da lehenesten, hiriko zeharbide batean baitago. 2017-2028 aldirako EAEko Errepideen Plan Orokorrak eta 2016-2027 aldirako Arabako Errepideen Plan Integralak Ilarratzan saihezbide bat egitea aurreikusten dute, eta horrek nabarmen murriztuko ditu kutsadura akustikoaren mailak.
- Gamarra Nagusia Gasteiz (N-240). Eremu hori ez da lehenesten Plan honetan; izan ere, hiriko bideen hurbiltasunak inguruko baldintza akustikoei eragiten die.

Gasteizko Udalak bidegorri bat lizitatu du, eta datozen hilabeteetan egingo du, Gasteiz eta Gamarra Nagusia kontzejua lotuko dituen, eta, N-240 errepidearen inguruan, VC2 bizikleta-bidearekin elkartuko dena (Gamarrako Atetik N-240rako bide-zatia). Bidegorri hori VC2 bizikleta-bidearekin lotuko da; VC2 bidea Arabako Foru Aldundia egiten ari da une honetan. Jarduketa hori Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) barruan dago.

Udalaren obrak egiteko, Gamarratik gertu dauden udal-bideak antolatu eta birzolatu behar dira.

- Urbina – Legutio (N-240). Eremu horretako afekzioa murrizteko, pantailatze baten diseinua aztertu da. Bideragarritzat jotako soluzioak 30.000 euro baino askoz kostu/onura ratio handiagoa du (balio maximo hori dago finkatua Ekintza Plan honetan).

Horrela, irizpide horiek aplikatuz, 3 eremuk dute jarduteko lehentasuna. Taula honetan zerrendatzen dira; horrekin batera, batetik, kalitate akustikoaren helburuak gainditzen dituen populazioa agertzen da (unitatetan adierazia, Arabako Lurralde Historikoaren foru-sareko errepideetako zarata-mapen 4. fasean jasotako datuen arabera), eta, bestetik, KAHak betetzen ez dituzten eraikin sentikorrik badagoen edo ez adierazten da.

8. taula Jarduteko lehentasuna duten eremuak.

LJE	ARDATZA	Udalerrria	Auzoa	Lg>55	Lg>65	Eraikuntza sentikorrak eremuan	Le>60
1	A-1	Donemiliaga	Egilatz	4	0	Ez	Ez
2	N-240	Legutio	Legutioko hirigunea	20	0	BAI	Ez
3	N-104	Gasteiz	Arkauti	9	0	Bai	BAI

Aipatu behar da lehenespen horren bidez eta aurreko plana beteta, Soinu Giroa Hobetzeko Ekintza Planean azaldutakoari erantzuten zaiola: Gasteizko 2019-2023 aldirako PAMASa eta dagokion BABEko 8. eremuko planean azaldutakoaren gehiengoa.

11. AGINTARI ESKUDUNEK DATOZEN BOST URTEETARAKO AURREIKUSITAKO JARDUERAK

Hona hemen datozen 5 urteetarako aurreikusitako jarduketaren zerrenda, honela sailkatuta:

- Prebentzio-plana.
- Etengabeko hobekuntzako plana.
- Plan zuzentzailea.

11.1 Prebentzio-plana

Neurri horien helburu nagusia da etorkizunean berriro ez gertatzea legearen urraketa-egoerarik, eta, horretarako, zenbait alderditan jardun beharra ezartzen du:

- Aztertzea zer neurri diren beharrezkoak eraikitako edo urbanizatutako inguruneetan KAHen gaineko inpaktu akustikoa sortzen duten azpiegitura berriak garatzean, eta neurri horiek ezartzea.
- Hirigintza-garapen hauek kontrolatzea: foru-sareko errepideek sortutako zarataren esposiziopeko eremuetan egotearen ondorioz KAHak ez betetzea eragin dezaketenak.

Horretarako, deskribatutako arazoak saihesteko beharrezkoak diren tresnak gaitzen jarraituko da. Horien artetik, honako hauek nahitaez bete beharrekoak dira:

- Zortasun akustikoko eremuaren kudeaketa. Indarrean dagoen eremua garatzea, eguneratzea eta administrazio eskudunei jakinaraztea.
- Nahitaezkoak dira azterlan eta proiektu akustikoak, zortasun akustikoko eremuaren barruan egingo diren urbanizazio berrietako garapenetan

- Nahitaezkoa da informazioa ematea Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailari eremu horretan egin nahi den edozein garapen buruz.
 - Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak 20 urtera begirako igorpen-egoera zehaztu behar du, azterketa akustikoa egitean kontuan izateko.
 - Nahitaezkoa da azterketa akustikoa egitea, eremu horretan dagokion legeria betetzen dela ziurtatzeko. Azterlan horren berri eman beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailari.
 - Nahitaezkoa da garapen osoan legeria betetzea ahalbidetuko duten soluzioen proiektua. Proiektu horren berri eman beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailari.
- Nahitaezkoa da azterlan eta proiektu akustikoak eskatzea, egun sentikorrak diren edo etorkizunean izango diren eremuetan eragina izan dezaketen eraikuntza-proiektuetan.
 - Lehendik dauden errepideetan, baldin eta zarata-igorpena 3 dB baino gehiago areagotzen bada, edozein arrazoi dela medio: trafikoa gehitzea edo aldatzea, azpiegitura aldatzea, etab.
 - Trazadura berrietan, alde batera utzita ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin behar den edo ez.
 - Egindako azterlanak eskatuko dira —bai ingurumen-inpaktuaren azterketaren zati gisa, baldin eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren esparruan nahitaez egin beharra badago, bai azterketa akustiko espezifikoa, ingurumen-inpaktuaren azterketarik ez dagoenean—.
 - Azterlan guztietan proiektuaren onuren ebaluazioa eta aplikatutako neurriak txertatuko dira.
- Indarrean dagoen araudiari lotutako informazio akustikoaren kudeaketa: aldizka, zarata-mapak sortzea, bai eta esku hartzen duten eragile guztiei dagokien informazioa ematea ere.
 - Beste administrazio batzuekin, udalekin, aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzako arloekin koordinatzea, elkarrekin lantzea komeni den arazoetarako, hala nola:
 - Udaletan definitutako babes akustiko bereziko eremuak, zeinetan errepideen fokua arazoen artean sartua baitago eta eremuko planen garapenean txertatzen baita,
 - Alderdietako edozeinek ezarritako neurri zuzentzaileen komunikazioa,
 - Informazioa, zaratan eragina duten eta edozein administraziori eragiten dioten jarduera-proiektuei buruzkoa.

Horretarako, Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak, kudeaketa akustikoaz arduratzen denak, komunikazio-metodoa eta -moduak ezarriko ditu kasu bakoitzean.

11.2 Etengabeko hobekuntzako plana

Errepidearen azpiegitura da zarataren sorgunea, eta, beraz, elementu horretan datza arazoaren zati handi bat.

Azpiegitura-proiektu berriak

- N-104 errepidea, Arkautiko hirigunea zeharkatzean. Bide perimetral bat eraikitzea eta zerbitzuan jartzea aurreikusten da, gaur egungo N-104 errepidean Arkauti zeharkatzen duen trafikoa nabarmen murrizteko, zeren eta iraupen laburragoko ibilbide alternatibo bat izango baita; horretan, eragina izango dute Arkautiko eta Elorriagako herriguneetako trafikoa murrizteko Udalak hartzeko asmoa duen neurriek.
- N-104 errepidea, Ilarrazako herrigunea zeharkatzean. Ilarrazta eta Matauko artean saihesbide bat egitea aurreikusten da.
- N-240 errepidea, Gamarrako hirigunean. Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) garapenean, Gasteiz iparraldetik (Gamarra) eta Arabako Parke Teknologikoa lotuko dituen VC2 bizikleta-bidea eraikitzeke proiektua egikaritzen ari dira. VC2-ren helburua da hiriarteko mugikortasun ez-motorizatua (bizikletaz eta oinez) sustatzea eta ahalbidetzea.
- N-240 errepidea, Legutioko hirigunea zeharkatzean. Arabako Foru Aldundiak birmoldatzea aurreikusten du A-2620 eta N-240 errepideen elkargunea, Legutioko udalerrian. "N-240 errepidearen eta Legutioko Santa Engrazia kalearen arteko elkargunea hobetzeko eraikuntza-proiektua, 15+850 KParen eta 16+600 KParen artean"

Zoladurak berritzea

Zarata Plan honetan bide-zoruen kontserbazioa sartzen da. Esan bezala, trafiko handieneko errepideetako errodadura-zoladura berritzeko, BBTM 11 B (M10) nahaste bituminoso etenak erabiltzen ari dira. Nahaste horiek, hutsune-kopuru handia dutenez, AC motako nahaste bituminoso jarraituek baino errodadura-zarata gutxiago igortzeko gai dira potentzialki.

Bide-zoruen ezaugarri akustikoak.

Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak hobetu egin nahi du aztertu diren errepideetan trafikoaren eraginaren diagnostikoa.

Alderdi horretatik, Arabako Foru Aldundiak parte hartzen duen "*Bide-zoruen Arauaren Lan Mahaia*"ren esparruan, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorren Batzordearen Ponentzia Tekniko gisa sartua baitago, aztergai dago Euskal

Autonomia Erkidegoko errepide-sareko zoladurak akustikoki karakterizatzea ahalbidetuko duen azterlan bat egiteko aukera. Karakterizazio horretarako, igorpen akustikoaren mailen lehenengo neurketa bat egin behar da, zoladura-mota desberdinek (AC 22, BBTM 11B eta PA) dispersioan duten eragina aztertzeko. Horretarako, sekzio adierazgarriak hautatu ondoren, zarata-mailen saiakuntzak egin behar dira, ibilgailu isolatuak igarotzean, horrela metodo ofizialaren (CNOSSOS-EU, zeinak zoladura-mota bakoitzak igorpen akustikoan duen eragina kuantifikatzen baitu) parametroaren balio hoberenak aurkitzeko.

Aipatutako lan-mahaia osatzen duten administrazioek adostutakoaren arabera, dagokion azterlana egingo da, Arabako errepide-sarean dauden zoladurak akustikoki karakterizatzeko.

11.3 Plan zuzentzailea. Lehentasunezko jarduketa akustikoko eremuak

Definitutako lehentasun-irizpideak aplikatuz, lehentasunezko 3 jarduketa-eremu definitzen dira eta honako taula honetan zerrendatzen dira; horrekin batera, batetik, kalitate akustikoaren helburuak gainditzeko dituen populazioa agertzen da (unitatetan adierazia, Arabako Lurralde Historikoaren foru-sareko errepideetako zarata-mapen 4. fasean jasotako datuen arabera), eta, bestetik, KAHak betetzen ez dituzten eraikin sentikorrik badagoen edo ez adierazten da.

9. taula Jarduteko lehentasuna duten eremuak.

LJE	ARDATZA	Udalerria	Auzoa	Lg>55	Lg>65	Eraikuntza sentikorrik eremuan	Le>60
1	A-1	Donemiliaga	Egilatz	4	0	Ez	Ez
2	N-240	Legutio	Legutioko hirigunea	20	0	BAI	Ez
3	N-104	Gasteiz	Arkauti	9	0	Bai	BAI

2 eta 3. LJEak hobetzeko aurreikusitako jarduketak zenbait eraikuntza-proiekturi lotuta daude, zeinak ez baitaude soilik Zarataren aurkako Ekintza Plan honi lotuta. Beraz, jarraian aipatzen diren proiektuen garapenaren arabera izango da lehentasunezko jarduketa-planaren xehetasuna:

- **LJE 2. N-240 Legutioko hirigunea**

Eremu horri proiektu honek eragiten dio: “N-240 errepidearen eta Legutioko Santa Engrazia kalearen arteko elkargunea hobetzeko eraikuntza-proiektua, 15+850 KParen eta 16+600 KParen artean”, zeina 2026ko lehen seihilekoan tramitatuko baita.

Jarduketa horrek zoladura berritzea dakar N-240 errepidearen eraginpeko zatian, egungo errodadura-geruzaren ordeztu eta eteneko nahaste bat jarritz.

Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila arduratuko da neurri hori abian jartzeaz.

Jarduera hori ez da Zarataren Ekintza Planaren aurrekontuan sartzen, jarduketa orokorrago batek eragiten baitio.

Jarduketa horren ondorioz, soinu-igorpena 2 dB murriztea espero da, eta, beraz, 12 pertsona onuradun izango dira, kalitate akustikoko helburuen gainetik zeudenak eta jardueraren ondoren egoteari utziko diotenak. Bizitegi-etxebizitzetara irizpide hori bera aplikatuz gero, tarte bakoitzean 12 etxebizitzak izango du onura (12 etxebizitza/tarte).

- **LJE 3. N-104 Gasteiz. Arkauti**

“Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmena, elkarri transferitzeko hiri-bilbean sartuta geratu diren errepide-zatiak eta errepideen foru-sarearen lotune diren biribilguneak” dokumentuak aurreikusten du bide perimetral bat zerbitzuan jartzea, honako bi puntu hauek lotzeko: N-104 errepideak A-132 errepidearekin gaur egun duen muga eta etorkizunean Iliada pasealekuarekiko lotura egingo duen biribilgunea.

Bide horren ondorioz, nabarmen murriztuko da gaur egungo N-104 errepidetik Arkauti zeharkatzen duen trafikoa, zeren eta iraupen laburragoko ibilbide alternatibo bat izango baita bide perimetraletik; horretan, eragina izango dute Arkautiko eta Elorriagako herriguneetako trafikoa murrizteko Udalak hartzeko asmoa duen neurriek.

Eraikuntza-proiektua idazten ari dira.

Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila eta Gasteizko Udalak dira neurri hori abian jartzeko eragileak.

Jarduera hori ez da Zarataren Ekintza Planaren aurrekontuan sartzen, jarduketa orokorrago batek eragiten baitio.

Jarduketa horren ondorioz, soinu-igorpena 3 dB murriztea espero da, eta, beraz, 8 pertsona onuradun izango dira, kalitate akustikoko helburuen gainetik zeudenak eta jardueraren ondoren egoteari utziko diotenak. Bizitegi-etxebizitzetara irizpide hori bera aplikatuz gero, tarte bakoitzean 6 etxebizitzak izango du onura (12 etxebizitza/tarte).

11.3.1 Lehentasunezko Jarduketa Planak

Eremu horretarako —lehentasunezkoa eta zeinaren neurri zuzentzailea 2025-2029 aldirako Zarataren Aurkako Ekintza Planarekin bakarrik baitago lotua—, azterketa xehatu bat egingo da, zeinean xehetasunezko zarata-mapak egingo baitira. Mapa horietan, beste mapa hauetan baino zehaztasun handiagoz ebaluatuko da inpaktua: Arabako Lurralde Historikoaren Foru Sareko errepideetako zarata-mapa estrategikoak (4. fasea) —Urtarrilaren 20ko 29/2023 Foru Aginduaren bidez onetsiak— eta Arabako Lurralde Historikoaren foru-sareko errepideetako zarata-mapak (4. fasea) —Gobernu Kontseiluaren abenduaren 19ko 850/2023 Foru Erabakiaren bidez onetsiak—. Izan ere, honako hauek jasoko ditu:

- Modelizazio akustikoa, xehetasun kartografiko handiagoz (metroz metroko sestra-kurbak).
- Kalkuluak lurretik 2 metroko altueran egingo dira eta modelizazioa xehetasun handiagoz definituko da.
- Trafikoaren egoeraren aurreikuspena 10 urtera begira.

Jarraian, 1. LJEan ezarri beharreko soluzioa aurkezten da.

- **LJE 1. A-1. Egilatz. Donemiliaga udalerria**

Eremu hori xehetasunez aztertu da, inpaktua egiaztatzeko eta neurri zuzentzaile egokiak zehazteko.

Egindako analisien ondoren eta aztertutako neurrien kostu/onura ratioa kontuan hartuta, honako pantaila akustiko hau egitea erabaki da:

Pantaila, norabide bakarreko bidearen iparraldeko ertzean:

- 3,5 m garai eta 422 m luze den pantaila-zatia.

Pantaila jarri ondoren, kalitate akustikoaren helburuak baino maila altuagoetan dagoen populazioa % 100 murriztu da pantailarik gabeko egoerarekiko:

L _{gaua}	50-55 dBA	55-60 dBA	60-65 dBA	65-70 dBA	> 70
Etorkizunean, pantailarik gabe	7	13	2	0	0
Etorkizunean, pantailarekin	13	0	0	0	0
Pertsona-kopuruaren murrizketa tarte bakoitzean	-	13	2	0	0
Murrizketa %-etan		% 100	% 100	-	-

Bizitegi-etxebizitzei dagokienez, zarataren puntu hartzaileetakoren batean altuera guztietan eta gauez kalitate akustikoaren helburuen gainetik dauden artean, pantaila jarri ondoren etxebizitzaren % 100ean murriztu da zarata, pantailarik gabeko egoerarekiko:

L _g aua	50-55 dBA	55-60 dBA	60-65 dBA	65-70 dBA	>70
Etorkizunean, pantailarik gabe	8	7	3	0	0
Etorkizunean, pantailarekin	11	0	0	0	0
Etxebizitza-kopuruaren murrizketa tarte bakoitzean	-	7	3	0	0
Murrizketa (%)		% 100	% 100	-	-

Emaitzak ikusita, ageri da pantailak 15 onuradun sortu dituela, kalitate akustikoko helburuen gainetik zeudenak eta ezarri ondoren jada ez daudenak

Bestalde, pantaila eraginkorra bada, murriztu egingo da gauez mailarik altuenak jasaten dituen populazioa. Aztergai den kasuan, bi pertsonagan zarata-maila bi tartetan murriztu da (60-65 dBA izatetik 50-55 dBA izatera igaro da). Pertsona onuraduntzat hartzen da esposizio-maila gutxienez 5 dBA-tan murrizten duena. Hala, biz biderkatzen da esposizio-maila bi tartetan murrizten duten pertsonen kopurua. Gauzak horrela, onura 17 pertsona/tarte da.

Bizitegi-etxebizitzei irizpide hori bera aplikatuz gero, tarte bakoitzean 13 etxebizitzak izango du onura (12 etxebizitza/tarte).

Pantailaren kostu osoa 487.410 € da.



4. irudia: 3,5 m-ko pantaila akustikoaren kokapenak 2. LJEan. Egilatz.

Jarduera hori 2025-2029 aldirako Zarataren aurkako Ekintza Planaren aurrekontuan sartzen da.

Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila arduratuko da neurri hori abian jartzeaz.

12. ONUREN ESTIMAZIOA

Adierazle gisa, honako hau ezarri da Zarataren aurkako Ekintza Planaren eta lehentasunezko jarduketa akustikoko planen onurak kuantifikatzeko:

- Gaur egun etxebizitzan kanpoaldean errepideek sortutako zarata-mailak kalitate akustikoko helburuak baino handiagoak dituztenen artean, Planaren neurriak ezartzean maila horiek 5 dB-ko tarte batean murriztuko zaizkion pertsona-kopurua. Adierazle hori tarte bakoitzeko pertsona onuradunen kopuru gisa (pertsona/tarte) adierazten da.

Adierazle horretan, jarduketa baten ondorioz murrizketa handia —5 dB baino handiagoa— lortzen denean, unitateak biz biderkatu behar dira.

Bigarren mailako adierazle gisa, honako hau ezarri da:

- Gaur egun etxebizitzan kanpoaldean errepideek sortutako zarata-mailak kalitate akustikoko helburuak baino handiagoak dituztenen artean, Planaren neurriak ezartzean maila horiek 5 dB-ko tarte batean murriztuko zaizkion etxebizitza-kopurua. Adierazle hori tarte bakoitzeko etxebizitza onuradunen kopuru gisa (etxebizitza/tarte) adierazten da.

Adierazle horretan, jarduketa baten ondorioz murrizketa handia —5 dB baino handiagoa— lortzen denean, unitateak biz biderkatu behar dira.

Adierazle horren helburua da, beste adierazlea gorabehera, onura hau ere islatzea: erroladatutako pertsonarik gabeko etxebizitzak izan arren —inoren ohiko bizilekuak ez direlako— aldizka biztanleak dituzten etxebizitzetan lortutako hobekuntza. Lehenetasunezko Ekintza Planetako neurri zuzentzaileak definitzean, etxebizitza horiek babestea ere kontuan hartu da, ahal izan den neurrian.

Taula honetan jasotzen da zenbat pertsonak eta etxebizitzak ateratzen dieten onura, tarte bakoitzeko (pertsona/tarte eta etxebizitza/tarte), Zarataren aurkako Ekintza Plan honetako plan zuzentzailean jasotako jarduketei.

10. taula. LJEetako onuren estimazioa.

	Pertsona/tarte	Etxebizitza/tarte
LJE 1. Egilatz	17	13
LJE 2. Legutioko hirigunea	12	12
LJE 3. Arkauti	8	6
Guztira	37	31

13. EPE LUZERAKO ESTRATEGIA

Epe luzerako estrategia, foru-errepideetarako kutsadura akustikoa kudeatzekoa, lehenengo Ekintza Planaren esparruan —2010eko lehen hiruhilekoan garatua— zehaztu zuen Arabako Foru Aldundiak.

Estrategia horren oinarrizko ildoek ez dute aldaketarik izan. Izan ere, azken helburua zen ahal bezain baliabide onak erabiltzea inpaktu akustikoak minimizatzeko, eta, horrela, herritarren konfiantza indartzea eta neurri zuzentzaileak kalitatez eta berrikuntza erabiliz egin direlako aitortza lortzea.

Hala ere, 213/2012 Dekretuak sortutako arau-esparruaren arabera, helburu horri —egungo egoera zuzentzeko ekintzan zentratua— inpaktuen prebentzioarekin zerikusia duena gehitu behar zaio, bi ikuspegitatik: batetik, foru-eskumeneko etorkizuneko azpiegiturak garatzeko neurri zuzentzaileak zehazteari dagokionez, eta, bestetik, zortasun akustikoko eremua definitzeari dagokionez, zeina funtsezko tresna baita udalek zarataren aurrean babestu ditzaten inpaktua eragiten duten foru-errepideetatik hurbil egongo diren etorkizuneko hirigintza-garapenak.

Aurreko Ekintza Planaren lan-esparruari eutsiz, Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Sailaren Errepideen Zerbitzuak, epe luzerako estrategian, gaur egun egiten diren koordinazio-ekintzei eutsiko die eta indartu egingo ditu, autonomia-erkidegoen lege-eskakizun hauek barne:

- Aldundiaren Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendu Sailarekin batera jarduteko protokoloa.
- Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Sailaren Errepideen Zerbitzuak herritarren zaratari buruzko erreklamazioak aztertzen eta erantzuten jarraituko du.
- Sustatzaileekiko koordinazioa, garapen berriei buruzko neurri zuzentzaileak hartu daitezela eskatzeko. Lan-ildo hori indartzeko, Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Sailak zortasun akustikoko eremua eguneratuko du.
- Batzorde mistoa Sustapen Ministerioarekin, Arabako Lurralde Historikoarekin mugakide den Manzanosen inguruneke jardueren baterako estrategia-oinarriak zehazteko.

Ekintza horiek gorabehera, eta esparru zabalago batetik begiratuta, honako puntu osagarri hauetan oinarritzen da Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriko eta Bide Azpiegituretako Sailak hartu beharreko epe luzerako estrategia:

- Errepideetako zarataren arloan erabilgarri dauden teknikarik hoberenen erabilera sustatzea. Zaintza teknologikoa garatzea, ahalik eta informaziorik eguneratuena biltzeko errepideetako kutsadura akustikoari aplikatu beharreko neurri zuzentzaileekin lotuta. Kontuan hartuko dira, soluzioen eta jarduketaren efikazia akustikoa ez ezik, soluzioen bizi-zikloari lotutako inpaktuak ere (ingurumenekoak eta ekonomikoak), bai eta beste ondorio batzuk ere, hala nola ezarritako neurrien pertzepzio soziala.
- Kutsadura akustikoaren kudeaketa Sailaren funtzioen barruan sartzea (funtzio hauek ditu: errepide berrien plangintza egitea, Arabako mugikortasuna kudeatzea eta bideak mantentzea).
- Koordinazio instituzionala garatzea beste administrazio batzuekin, zarata-fokuen kudeatzaileekin (ADIF) eta Arabako Foru Aldundiko errepideak igarotzen diren udalerrietako udalekin.
- Herritarrei informazioa ematea, Sailaren web-orriko berariazko atal batean —zarata-mapei eta ekintza-planari buruzko informazioa aurkezteko sortutakoa—.
- Jendea kontzientziaztea, errepideetako zarata murrizteko jarduketaren inguruan.

Epe luzerako estrategia horren esparruan, sarearen beharretara egokitzen joango dira Ekintza Planak, zarata-mailak pixkanaka murrizteko prozesu batean, KAHak bete arte, betiere proportzionaltasun ekonomikoa kontuan hartuta.

14. INFORMAZIO EKONOMIKOA ETA EGIKARITZE-PLANA

Jarraian, 2025-2029 aldirako Ekintza Planaren jarduera-ildo bakoitzari lotutako aurrekontuak zerrendatzen dira:

1. Zoladurak berritzea.

Ez dago kuantifikatzerik lerro horren aurrekontua, ezin baitira zenbatetsi datozen 5 urteetan zoladurak berritu beharreko km guztiak.

2. Dauden pantaila akustikoak kontserbatzea.

Ez dago kuantifikatzerik lerro horren aurrekontua, ezin baitira zenbatetsi Zarataren aurkako Ekintza Plana garatzen den bitartean sortuko diren benetako beharrak.

3. Pantaila akustiko berriak ezartzea:

1. LJEraiko lerro horrek 487.410 €-ko aurrekontua du, 2025-2029 aldirako Planaren egikaritze materiala egingo den bitarte osoan.

4. Zortasun akustikoko eremuaren kudeaketa. Zaratari buruzko erreklamazioei erantzutea.

Ez dago kuantifikatzerik lerro horren aurrekontua, ezin baita zenbatetsi datozen 5 urteetan jasoko den erreklamazio- edo kexa-kopurua.

15. JARRAIPEN-PLANA

Ekintza Plana indarrean dagoen bitartean: 2025-2029 aldian, plan baten bidez jarraipena egingo zaie lehentasunezko eremuko planen ezarpen- eta garapen-mailaren eta prebentzioko eta etengabeko hobekuntzako neurriei.

Jarraipen-plan horrek egutegi honi jarraituko dio: Arabako Lurralde Historikoko foru-errepideetan hobekuntza akustikoaren arloan inbertituko diren baliabide ekonomikoen aurrekontu-banaketan oinarritutakoari.

Planaren jarraipen-adierazle bakar gisa, aurreikusitako jarduketan eta neurrien artean egikaritu direnen ehunekoa hartuko da. Adierazle hori urtero kalkulatu da.

16. INFORMAZIOA JENDAURREAN JARTZEKO PROZESUA

Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 18. eta 19. artikuluen arabera, bi nahitaezko betetze-aldi ezartzen dira:

“18. artikulua.– Ekintza-planak onartzeko prozedura

1.– Ekintza-plan bat onartu aurretik, egoki deritzoten alderdiei buruz txosten bat egin dezatela eskatuko zaie zarata-fokuen pertsona edo erakunde titularrei nahiz gaiarekin lotura duten gainerako administrazioei. 30 egun balioduneko epea izango dute aipatu txostena egiteko, betiere, dekretu honetan jasotako eskumenen arabera. Ekintza-plana idatziko duen pertsonak edo erakundeak kontuan izan beharko du aipatu txosten hori.”

“19. artikulua.– Ekintza-planen publizitatea.

1.– Ekintza-plana egin ondoren, hura hilabetez jarri beharko du jendaurrean administrazio eskumendunak.

2.– Hala, bada, horren berri eman beharko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagozkion lurralde historikoetako aldizkarietan, pertsona fisiko edo juridiko orok dagoen dokumentazioa eta erabilitako prozedurak aztertzeke aukera izan dezan. Agiriak non erakutsiko diren eta alegazioak egiteko epea zein den zehaztu beharko da iragarkian.”

16.1 Kotsulten izapidearen justifikazio-memoria

Foru Gobernu Kontseiluaren 772/2025 Erabakiaren bidez, 2025eko abenduaren 16koa, behin-behineko onarpena eman zitzaion "ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU SAREKO ERREPIDEETAKO ZARATAREN AURKAKO EKINTZA PLANA. 37/2003 Legea eta 213/2012 Dekretua betetzea. 2002/49/EE Zuzentarauaren 4. fasea. 2025-2029 aldia", bai eta eragindako udalekin kontsulta-aldia hastea eta nahitaezko jendaurreko informazio-izapidea egitea ere.

213/2012 Dekretuaren 18. artikuluan Ekintza Planak onartzeko prozedurari buruz ezarritakoaren arabera, 2025eko abenduaren 23an erabaki hori jakinarazi zitzaion eragindako udal guztiei, behin-behinean onartutako Ekintza Planaren dokumentazioarekin batera, 30 egun balioduneko epean txostena egin zezaten, egoki iriztitakoaren eta Dekretuan jasotako eskumenen arabera.

Ezarritako epea amaituta, Amurrio, Arratzua-Ubarrundia, Armiñon, Bastida, Legutio, Donemiliaga eta Laudioko udalen txostenak jaso dira.

16.2 Informazioa jendaurrean jartzeko prozesuaren emaitzak

213/2012 Dekretuaren 19. artikuluekin bat etorriz, Ekintza Planen publizitateari buruzkoa, jendaurreko informazio-izapidea hasi da, iragarkia 2025eko abenduaren 26an ALHAOn eta 2026ko urtarrilaren 16an EHAAan argitaratuz, edozein pertsona fisiko edo juridikok behin-behinean onartutako dokumentua aztertu eta alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan.

Legez ezarritako epea igarota, bi alegazio baino ez dira jaso, Erriberabeitiko udalerrian eta Arratzua-Ubarrundiako udalerrian kokatuta.

16.3 Ekintza Planaren behin betiko onarpena

Dokumentu hau behin betiko onartutakoarekin bat dator, eragindako udalei egindako kontsulta-izapidean eta jendaurreko informazio-izapidean aurkeztutako alegazioei erantzun ondoren.

2025-2029 Ekintza Planaren dokumentua behin betiko onartu ondoren, Europako Batzordeak eskatutako DF7_10 fitxategiekin lotutako dokumentazioa (ENDren VI. eranskina) MITERDra bidaliko da.